



A eredua

IRAKASKUNTZAKO HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK

HE2
(C1 maila)

PROBA IDATZIA

Idatzi zure kodea:

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

AZTERKETA HONETAZ

- Proba honek hiru ariketa ditu: 1) Irakurmena 2) Idazlan luzea 3) Idazlan laburra
- Denbora: **3 ordu**.

IRAKURMENA

Akatsa

Akatsa egitea gaitasun faltarekin lotu ohi bada ere, badira hanka-sartzearen balioa aldarrikatzen duten pertsonak, akatsa arrakasta lortzeko ezinbesteko urratsa den neurrian. Hainbat jakintza-arlotan aurki daitezke oker aritzearen onura defendatzen dutenen hausnarketak. Bada izena jarri dienik ere: *erroristak*.

Hanka-sartzeak ez dira aipatu ohi, besteren aurrean harro agertu nahi dugunean, batez ere. Are gehiago, akatsak mingarriak, lotsagarriak, deserosoak, traumatikoak eta abar izan daitezke, eta izaten dira. Bada, ordea, huts egitearen aldarria egiten duenik, baita okerrak(1).... merezi duela dioenik ere, ikasteko bide bakarra eta gizatasunaren muineko ezaugarria dela(2).... . Oraindik izen ofizialik ez duen arren, akatsen alde emankorra azpimarratzen duten diskurtsoak izendatzeko kontzeptu bat ari da zabaltzen(3).... : *errorismoa*.

Errorismoaren adibide izan daitezke, esaterako, munduan(4).... eta ugariagoak diren *Fuck Up Nights* topaketak.(5).... istorioak kontatzeko hitzaldiak dira, eta huts egitetik ikasitakoak gerora zein baliagarri izan diren kontatzen diete elkarri parte-hartzaileek. Mundu zabaleko(6).... hiritan antolatzen dira, eta Euskal Herrian ez dira arrotzak. Donostiako Tabakaleran egiten dituzte topaketak, hiru(7).... behin. Sol Busca antolatzailleak azaldu duenez, helburua «mugimendua eratzea da», eta,(8).... batera, «gizartean porrotaren inguruan dauden beldurrak kentzea, ekintzaileak animatzeko». Arlo desberdinetako hiru ekintzaile elkartu(9).... dituzte. Hizlariak aurkitzea, ordea, ez da kontu erraza izaten. «Jende askok oraindik ez du bere akatsei buruz hitz egin nahi».

Mexikon du jatorria mugimendu horrek. «Trago batzuk hartzeko elkartzen ziren lagun batzuk konturatu ziren oso(10).... hitz egiten zela porrotei buruz. Negozio bat edo bikote-harreman bat oso ondo zihoanean, erraz hitz egin(11)....; baina ohartu ziren egoera kontrakoa zenean arazoak(12).... joera izaten zela. Orduan hasi ziren hilero ekitaldiak antolatzen, porrotari buruz hitz egiteko».

Akatsak egiteari buruz gizartean dagoen ideia(13).... da, Buscaren iritziz. «Pentsatu ohi dugu porrot egiten duena ez dela gai gauzak egiteko. Gure ideia(14).... kontrakoa da: saiatzen denak ikasten du, eta, berriro aukera duenean, hura izango da(15).... hobeto egiteko». Topaketetan(16).... esperientziek huts egitearen balioa frogatzen dutela deritzo Buscak. «Gehienek esaten dute porrotari esker izan dutela arrakasta(17).... proiektuetan. Porrotak beste begirada bat eskaintzen dizu, beste egiteko modu bat. Batzuek diote ez direla hurrengo egunean hasi proiektu berri batekin, denbora behar izan dutela esperientziari(18).... emateko, eta zaila egiten dela. Baina, beste proiektu bat aurkitzen dutenean, motibazio handiz(19).... diotela».

Internazional Errorista Buenos Airesen sortu zen. Elkarrekin bere webgunean jasotzen(20).... , *errorismoa* «mugimendu kultural, teknologiko, zientifiko, politiko eta espirituala da, eta bere(21).... akatsean oinarritzen du». Internazional Erroristako kide Franco Berardi filosofo italiarraren(22).... , «akatsa da aurrerabiderako modu bakarra algoritmoen errepikapen infinituaren garai honetan. Akatsa da giza komunikazioa makineria digitaletik aska dezakeen(23).... . Akatsak soilik salba dezake gizadia perfekzio digitaletan oinarritutako testuinguru tekniko eta sozialetik».

Psikologia-ikerketek frogatu dute okertzea(24).... dela ikasketa-prozesuan. Hala defendatu du Cesar San Juan EHUKo psikologia-irakasleak. «Saikera/akatsa dikotomian(25).... ikasketa askoz ere eraginkorragoa da memoriarentzat, saiakerak akatsik gabe egiten ditugunean baino. Adibidez, bideo-joko batek ez liguke inolako interesik piztuko(26).... eta makinari beti irabaziko(27).... . Azkar aspertuko ginateke. Hanka sartu behar dugu ikasteko, galdu egin behar dugu motibatzeke».

Akatsak ondorio larriak izan ditzake hanka-sartzearen tamainaren arabera, eta(28).... da, beraz, desiragarriak ez izatea. Hala ere, dramatikoak izan ez(29).... , zenbaitetan akats egitea esperientzia mingarria izan ohi da. Bi zergati nabarmendu ditu San Juanek: erabaki arrazionalak hartzeko gaitasuna neurritz(30).... baloratzea eta besteen nahiei erantzuteko presioa. «Hanka sartzen dugunean sentitzen dugu ez ditugula egoeraren aldeko eta kontrako ezaugarriak ongi neurtu, ez garela horretarako gai izan. Horrez gain, senti dezakegu besteek(31).... espero zutenari huts egin diogula. Oso garrantzitsua da kontuan hartzea batzuetan ezinezkoa dela erabaki erabat arrazionalak hartzea». Kasu horietan bihotzari entzutea komeni dela deritzo.

San Juanen arabera, huts-egiteek eskain ditzaketen aukerak baliatzeko,(32).... optimista izatea da gakoa. «Badira frustrazioan gelditzen diren pertsonak, eta porrot-sentimenduari helduta(33).... hartzen dutenak. Baina zailtasunen aurrean jarrera positiboa izateko gaitasuna landu egin daiteke. Horrek ahalegina eskatzen du, epe motzean katartikoagoa baitirudi hartutako erabaki okerrengatik norbere burua(34)....».

Okerrari etekina ateratzeko, hutsegiteaz(35).... egotea erabakigarria dela(36).... zuen Francis Bacon filosofo ingelesak. «Argiago azaleratzen da egia akatsetik nahasmenetik baino». Zientziaren aurrerapenerako ezinbesteko(37).... da argi jardutea, Juan Ignacio Perez Iglesias EHUKo errektore ohi eta egun Kultura Zientifikoaren katedrako arduradunarentzat ere. «Hanka sartzea baliagarria izan daiteke argi baldin badugu gauzak(38).... egin ditugun; hurrengoan, berriz saiatzeko garenean, gauzak ezberdin egiteko. Nahastea eta okertzea ez dira gauza bera. Okertu zaitezke aldagai bat kontuan hartu ez duzulako. Erabaki txarra hartu duzu, baina badakizu zer egin duzun eta zergatik.(39).... , ez zara nahastu». Perez Iglesias(40).... da argiak ez diren diskurtsoekin. «Irakasle batek gaiak argi azaltzen ez baditu, ez da irakasle ona. Berdin gertatzen da politikariek ere: hitz ulergaitzak erabiltzen badituzte, ez naiz fio».

Gorka Berasategi Otamendi, *Berria*, Bizigiro, 2017-01-25 (moldatua)

Idatzi zure aukerak Erantzun-orrian. Erantzun-orrian markatzen dituzun aukerak bakarrik hartuko dira kontuan ariketa zuzentzeko.

1. a) kolpea b) gorazarrea c) zuzenketa d) gorrotoa	2. a) irudituz b) ustez c) iritzita d) pentsatzen	3. a) pixkanaka b) firin-faran c) aho batez d) aldian-aldian	4. a) zenbat b) hainbat c) orduan d) gero	5. i a) Abentura b) Esperientzia c) Gaueko d) Porrot
6. a) aski b) hainbeste c) hamaika d) sobera	7. a) hilean b) hilabete c) hilero d) hileko	8. a) beste b) horrekin c) horretaz d) alderdi	9. a) omen b) ohi c) ote d) ere	10. a) sarri b) lasai c) txarto d) gutxi
11. a) zuten b) zezaketen c) zitezkeen d) zioten	12. a) konpontzeko b) ezkutatzeko c) zabaltzeko d) deuseztatzeko	13. a) okertuta b) alferra c) okerra d) zentzuzkoa	14. a) justu b) pixka bat c) are d) hainbat	15. a) norbait b) gai c) agian d) ere
16. a) bildutako b) irabazitako c) ahaztutako d) proposatutako	17. a) datorren b) honako c) hurrengo d) aurreko	18. a) adorea b) buelta c) eskerra d) ezezkoa	19. a) heltzen b) hartzen c) hasten d) erasotzen	20. a) duenean b) duela c) duenez d) duenez
21. a) topaketa b) jarduera c) erakundea d) lanbidea	22. a) taxuz b) esanetan c) azalpenez d) aditzera	23. a) kalea b) zuloa c) eskua d) bakarra	24. a) ezinbestekoa b) saihesgarria c) kaltegarria d) zigortzekoa	25. a) agindutako b) hitz emandako c) oinarritutako d) inposatutako
26. a) orduan b) baldin c) hainbat d) gero	27. a) geniokeen b) ezkerro c) bagenioke d) bagenio	28. a) larria b) zentzuzkoa c) kezkatzekoa d) harrigarria	29. a) arren b) nahian c) ezik d) daitezen	30. a) kanpoan b) apartez c) gain d) at
31. a) gugandik b) gugatik c) gurekin d) gure	32. a) bizitza b) jarrera c) erabaki d) egoera	33. a) bidea b) atsegin c) gogoan d) su	34. a) barkatzeak b) maitatzeak c) ahazteak d) zigortzeak	35. a) jakitun b) ados c) lotsaz d) alde
36. a) esanarazi b) ohartarazi c) kontrarazi d) pentsarazi	37. a) baldintza b) jokoa c) ustea d) sinesmena	38. a) non b) nola c) noiz d) zergatik	39. a) Beraz b) Dena den c) Noski d) Halaber	40. a) haserre b) ezkorra c) mesfidati d) ziur



A eredu

HE2 PROBA IDATZIA

ERANTZUN-ORRIA

Idatzi zure kodea:									
--------------------	--	--	--	--	--	--	--	--	--

IRAKURMENA

[illegible]

Idatzi zure kodea:										
--------------------	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

IDAZLAN LUZEA

Aukeratu gai hauetako bat. Gutxienez 250 hitz dituen idazlana egin behar duzu.

Teknologiak jango al gaitu? Irakasleok ere teknologia berrien munduan murgilduta gaude. Harremanak, aisia, lana, ikasketak.... Gero eta gauza gehiago egin litezke bide telematikoak erabilita. Zuk ere erabiltzen dituzu, baina kezka ere eragiten dizute. Egizu gogoeta eskolako aldizkari digitalean. **Hizpide hauek garatu behar dituzu:**

- Azaldu egoera: teknologia berriek ekarri dituzten aldaketak.
- Aipatu alde onak eta eragozpenak.
- Azaldu nola erabili teknologia etorkizunean.

Atzerrian ikasi. DBHko guraso batzuek euren seme-alabak atzerrian ikastea nahi lukete eta, tutorea zarenez gero, iritzia eskatu dizute. Idatzi gutuna gurasoei. **Hizpide hauek garatu behar dituzu:**

- Adierazi alde onak (hizkuntzak, autonomia...) eta alde ez hain onak (dirua, azterketak, bakardadea...).
- Eman azalpenak: zein kurtsotan joan, helburua, komenigarria den...
- Egin orain arteko esperientzien balorazioa.

10.....

20.....

30...

40...

50...

60...

IDAZLAN LABURRA

Idazlan honek gutxienez 150 hitz izan behar ditu.

Jolaslekua zikin. Tutorea zara. Eskolako atsedenaldia bukatu eta gero zikin geratzen da egunero jolaslekua; izan ere, ikasleek ez dituzte bilgarriak paperontzietan botatzen. Klaustroan egoera aztertu duzue eta erabaki ikastaldeari eskutitza idaztea gelako blogean. Idatzi gutuna zure ikasleei. **Hizpide hauek garatu behar dituzu:**

- Azaldu egoera eta ondorioak.
- Gogorarazi prozedura egokia.
- Eskatu konpromisoa jolaslekua garbi mantentzeko.

10

20

30

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

40.....

ERANTZUN ZUZENAK

HE2: Irakurmena (Akatsa)

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
B	C	A	D	D	C	A	B	B	D

11	12	13	14	15	16	17	18	19	20
B	B	C	A	B	A	C	B	A	D

21	22	23	24	25	26	27	28	29	30
B	B	D	A	C	B	D	B	A	C

31	32	33	34	35	36	37	38	39	40
A	B	B	D	A	B	A	B	A	C